

Abenduaren 16an, agur esan genion Guggenheim Urdaibai proiektuari eta, horrela, plataforma honen helburu nagusia bete zen. Orain, Busturialdeak jasan duen mehatxu nagusia desagertuta, aurreranzko urratsak emateko garaia da.

Beti esan dugu, plataformak Bizkaiko Foru Aldundiari ez ziola lagunduko Astilleros de Murueta SA ontziola, okupatzen dagoen lursailetik ateratzen, zer eta horren tokian museo bat jartzeko. Eta are gutxiago, kanporatze hori diru publikoz ordaindutako salerosketa prozesu baten ondorioa izanda.

Beti esan dugu ontziola ez litzatekeela hor egon beharko eta okupatzen dituen lurrak, paduraren parte direnak, deskutsatu eta errestauratu behar zituela, inolako baldintza barik.

2024ko martxoan, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak onartu egin zuen ontziolak 1943an lortutako emakida iraungita zegoela. Halaber, 2025ean, Estatuko Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salak onartu du enpresak instalazioak handitu dituela urteetan zehar, alde batera utziz itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoari buruzko emakida-titulu eta baimen oro.

Aitortza horien aurrean, plataformak Kantabriako ADRA ingenieritza enpresa kontratatatu zuen helburu bikoitza duen txosten teknikoa egiteko:

1. Indarrean dagoen mugaketa kontutan izanda, ontziolak itsaso eta lehorreko jabari publikoari dagokion zein eremu okupatzen duen zehaztea, (baita 1943ko emakidatik kanpo ere)
2. Muruetako ontziolaren jarduerari lotutako lurrak (instalazioak eta biltegiak), bitarteko artifizialez babestuta egon ezean, urak berez hartu ditzakeen lurrak diren zehaztea. Eta hala balitz, indarrean dagoen mugaketa berrikusi eta zuzentzea.

Abenduaren 9an jaso zuen plataformak txostena eta bertan jasotako ondorioak ezin dira argigarriagoak izan:

- Ontziolak 2024an okupatzen zituen 10.902 m²etatik, %56,69a ontziolaren sorreratik bertatik egin diren instalazioak edo/eta lehendik zeuden beste batzuen zabalkuntzak dira. Hori guztia, edozein emakida edo lizentzia alde batera utzita.
- Muruetako Ontziolen jarduerari atxikitako lursail guztiak (instalazioak eta biltegiak) urak berez hartu ditzakeen lurrak dira. Baliabide artifizialek eragozten dute uholdea, beraz, Kostaldeein buruzko Legearen arabera, itsas jabari publikoaren parte dira.

Hori dela eta, Elkartek bi bide paralelo sustatu ditu Kostaldeko Demarkazioan:

1. Alde batetik, indarrean dagoen mugaketa (2004) berrikusteko eskatu zaio, ontziolaren instalazioari lotutako lursail guztien izaera demaniala aitortzeko.
2. Bestetik, Muruetako ontziolak okupatutako itsas-lehorreko jabari publikoa berreskuratzea eskatu da, eta haren jatorrizko ezaugarri fisikoak eta elementu naturalak lehengoratzea. Izan ere, eremu hori inolako titulu juridikorik gabe bereganatu du, eta okupazio- edo aprobetxamendu-eskubideren bat eskuratzeko aukerarik ere emango liokeen jabetza-titulurik ere ez du.

Urrats hauek emanda, herritarrak dira berriro ere instituzioek hartu beharreko ardura hartu dutenak eta Urdaibai Biosfera Erreserbaren babesa bultzatuko dutenak.